

AURKIBIDEA

INDICE

3


-	06 INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA.....	1
	<i>06 INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	67
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4431 Kontsumoa.....	69
	<i>Consumo</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana.....	73
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
	5413 Teknologia.....	75
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Egitura eta Laguntza.....	79
	<i>Estructura y Apoyo</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza.....	87
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	93
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia.....	95
	<i>Innovación y Estrategia de Competitividad</i>	
	7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena.....	99
	<i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>	
	7511 Turismoa.....	103
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza.....	111
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Kanpo Merkat.aren Sustapena eta Lankidetzeta Ekon.....	115
	<i>Promoción Comercio Exterior y Coopera. Económica</i>	
-	Diru-sarrereren egoera.....	119
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	4431 Kontsumoa.....	121
	<i>Consumo</i>	
	5413 Teknologia.....	123
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Egitura eta Laguntza.....	125
	<i>Estructura y Apoyo</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza.....	127
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	129
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7511 Turismoa.....	131
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza.....	133
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Kanpo Merkat.aren Sustapena eta Lankidetzeta Ekon.....	135
	<i>Promoción Comercio Exterior y Coopera. Económica</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	137
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	

-	Sarrerren Laburpenak	141
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	07 ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK.....	145
	07 VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	147
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	209
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	1312 Garapen Lankidetz.....	211
	<i>Cooperación al Desarrollo</i>	
	3122 Inmigrazioa	213
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	217
	<i>Servicios Sociales</i>	
	4311 Egitura eta Laguntza	225
	<i>Estructura y Apoyo</i>	
	4312 Etxebizitza	231
	<i>Vivienda</i>	
-	Diru-sarrerren egoera.....	251
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	1312 Garapen Lankidetz.....	253
	<i>Cooperación al Desarrollo</i>	
	3122 Inmigrazioa	255
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	257
	<i>Servicios Sociales</i>	
	4311 Egitura eta Laguntza	259
	<i>Estructura y Apoyo</i>	
	4312 Etxebizitza	261
	<i>Vivienda</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	265
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	269
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	08 HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA	273
	08 EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	275
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	327
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4211 Egitura eta Laguntza	329
	<i>Estructura y Apoyo</i>	
	4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	337
	<i>Educación Infantil y Primaria</i>	
	4222 Bigarren Hezk., Osabidezkoa eta Lanbide Heziketa	345
	<i>Educ.Secundaria, Compensatoria y Formación Profes.</i>	
	4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	363
	<i>Enseñanza Universitaria</i>	
	4224 Araub. Bereziko Irakask. eta Helduen Hezk. Iraunk.	367
	<i>Enseñ. Rég.Especial y Educac.Permanente de Adultos</i>	
	4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prest.....	375
	<i>Innovación Educ. y Form. Perman. del Profesorado</i>	
	4231 Hezkuntza Sustapena	383
	<i>Promoción Educativa</i>	
	4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	387
	<i>Euskaldunización del Sistema Educativo</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana.....	393
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	

5412 Ikerketa	395
<i>Investigación</i>	
- Diru-sarrereren egoera	399
<i>El Estado de Ingresos</i>	
4211 Egitura eta Laguntza	401
<i>Estructura y Apoyo</i>	
4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	403
<i>Educación Infantil y Primaria</i>	
4222 Bigarren Hezk., Osabidezkoa eta Lanbide Heziketa	405
<i>Educ.Secundaria, Compensatoria y Formación Profes.</i>	
4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	407
<i>Enseñanza Universitaria</i>	
4224 Araub. Bereziko Irakask. eta Helduen Hezk. Iraunk.	409
<i>Enseñ. Rég.Especial y Educac.Permanente de Adultos</i>	
4231 Hezkuntza Sustapena	411
<i>Promoción Educativa</i>	
4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	413
<i>Euskaldunización del Sistema Educativo</i>	
5412 Ikerketa	415
<i>Investigación</i>	
- Gastuen Laburpenak	417
<i>Resúmenes de Gastos</i>	
- Sarrereren Laburpenak	421
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
- 09 OSASUNA	425
09 SANIDAD	
- Sekzioaren eta Programen Memoriak	427
<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
- Gastuen egoera	471
<i>El Estado de Gastos</i>	
4111 Administrazio Orokorra: Egitura eta Laguntza	473
<i>Administración General: Estructura y Apoyo</i>	
4112 Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	493
<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	
4113 Osasun Publikoa	503
<i>Salud Pública</i>	
4114 Osasun Plangintza eta Antolamendua	511
<i>Planificación y Ordenación Sanitaria</i>	
4115 Farmazia eta Laguntza ortoprotesikoa	517
<i>Farmacia y Prestación ortoprotésica</i>	
5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana	521
<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
- Diru-sarrereren egoera	523
<i>El Estado de Ingresos</i>	
4111 Administrazio Orokorra: Egitura eta Laguntza	525
<i>Administración General: Estructura y Apoyo</i>	
4112 Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	529
<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	
4113 Osasun Publikoa	531
<i>Salud Pública</i>	
4114 Osasun Plangintza eta Antolamendua	535
<i>Planificación y Ordenación Sanitaria</i>	
4115 Farmazia eta Laguntza ortoprotesikoa	537
<i>Farmacia y Prestación ortoprotésica</i>	
- Gastuen Laburpenak	539
<i>Resúmenes de Gastos</i>	
- Sarrereren Laburpenak	543
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	

The background features a stylized, light green map of the Basque Country. In the foreground, there are several Euro coins, with the Euro symbol (€) clearly visible on two of them. The overall color scheme is light green and white.

06 INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA
06 INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

The background features a stylized map of the Basque Country in shades of green and yellow. In the lower-left and lower-right corners, there are several Euro coins, also rendered in a light green and yellow color scheme. The overall aesthetic is clean and modern, with a focus on regional identity and currency.

Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

2006ko aurrekontu-ekitaldia Enpresa Lehiakortasuna eta Gizarte Berrikuntza estrategia berriaren indarraldian garatuko den lehena izango da. Oraingoan, izen hori du aurtengo martxoan ezagutzera eman den eta 2006-2009 aldian industria-politika egituratuko duen Plan berriaren bihotza izango den Euskadi 2015 Lehiakortasun Foroaren ondoriozko gogoetak.

Jardueraren globalizazioa eta aurrerapen teknologikoaren bizkortzea ezaugarri nagusi dituen egungo testuinguru ekonomikoa erronka handia da, eta lehiakortasun-politikaren erantzun egokia eskatzen du, politika horrek eredu ekonomikoa eta, aldi berean, ongizate-estatuaren iraunkortasuna bermatzen saiatzeko bere gain hartu behar duen erantzukizun handiarekin bat etorriko den erantzuna, alegia. Lisboako Estrategiaren eta, estrategia hori euskal errealitatera moldatuta, Lehendakariak iragarritako 2. Eraldaketaren planteamenduaren ildotik, hiru jardun-ardatz nagusitan oinarrituta dago estrategia berriak definitutako lehiakortasun-eredu berria: 2. Eraldaketarako balio berriak eta pertsona prestatuak, Ekonomia globalean lehiatzeko dimentsioa eta taldeak, eta Berrikuntza enpresetan eta gizartean.

Sailaren jarduera, lehen Ardatza berriazko jardun jakin batzuetan txertatzeko aukera aparte utzi gabe (pertsonen zeregina zientzian eta teknologian, zuzendaritza-garapena eta abar), gainerako bi ardatzen mendeko sei programatan egituratuko da: Enpresen eta enpresa taldeen hazkundera, Enpresak sortzea, Nazioartratzea, Gizarte-berrikuntza eta enpresa-erlidaketa, Estrategia zientifiko-teknologikoa eta Informazioaren eta jakintzaren gizartea. Programa horiei honako hauek gaineratu behar zaizkie: Merkataritzako eta Turismoko berriazko estrategiak, 2010erako definitutako 3E Energia Estrategia, eta Sailaren eskumen-eremua ixten duten Kontsumoaren eta Administrazioaren, eta Industria Segurtasunaren arloei lotutako programak.

Programen berritasun garrantzitsuenen artean, bi dira aipatu beharrekoak. Alde batetik, enpresa-hazkunderaren eta taldeen prestakuntzaren beharra eta ekileen jarduera kultura-sustraietatik sustatzeko lana (nazioartratzearen alderdiarekin batera ereduaren Ardatzetako bat osatzen dutenak) azpimarratzen dira. Bestetik, berrikuntzaren eremuan, estrategia teknologikoa bultzatutako egitura-aldaketa eta informazioaren gizartearen garapena sendotzearekin batera, jakintza sortzeari eta berrikuntzaren gizarte-dimentsioari ematen zaie garrantzia. Berrikuntza hori gizarte-sareei zein erakundeak eraldatzeko beharri lotuta dago, eraldaketa hori sormenak eta berrikuntzak lehiakortasunaren funts gisa gora egiteko proiektu konpartituak sortzera bideratuta dagoela kontuan hartuta.

Merkataritzaren eta Turismoaren arloko orientazio berrien artean, hiri-balorizazioa nabarmentzen da. Horretarako, merkataritza-lehiakortasuna sendotuko duten zonako estrategiak eta hiriari, kulturari eta negozioei lotutako segmentua finkatzeko lagungarriak izango diren turismo-segmentu berrien garapena hartzen dira kontuan.

Aurrekoari jarraiki, Sailak honako arlo eta programa nagusi hauetan egituratuko du bere jarduna:

1. ENPRESEN ETA ENPRESA TALDEEN HAZKUNDEA.

El ejercicio presupuestario de 2006 va a suponer el primero que se va a desarrollar bajo la vigencia de la nueva estrategia de Competitividad Empresarial e Innovación Social, nombre con el que por el momento se conoce la reflexión resultante del Foro de Competitividad Euskadi 2015, dada a conocer en marzo de este año y llamada a constituirse en el corazón del nuevo Plan que va a articular la política industrial en el periodo 2006-2009.

El actual contexto económico caracterizado por la globalización de la actividad y la aceleración del progreso tecnológico supone un gran desafío que demanda una respuesta adecuada de la política de competitividad, acorde con la gran responsabilidad que esta debe asumir para tratar de garantizar la sostenibilidad del modelo económico y con él la del estado de bienestar. En línea con la Estrategia de Lisboa y la traducción de la misma a la realidad vasca que supone el planteamiento de la 2. Transformación auspiciada por el Lehendakari, el nuevo modelo de competitividad definido por la nueva estrategia se basa en tres Ejes de actuación principales: Nuevos valores y personas preparadas para la 2. Transformación, Dimensión y grupos para competir en la economía global, e Innovación en las empresas y en la sociedad.

La actividad del Departamento, sin perjuicio de incorporar el primero de los Ejes a determinadas actuaciones específicas (papel de las personas en la ciencia y la tecnología, desarrollo directivo, etc.) se va a articular en seis programas dependientes de los dos ejes restantes (Crecimiento de empresas y grupos empresariales, Creación de Empresas, Internacionalización, Innovación social y transformación empresarial, Estrategia científico-tecnológica y Sociedad de la Información y el conocimiento) a los que se vienen a añadir las estrategias específicas de Comercio y Turismo, la Estrategia Energética 3E definida con el horizonte 2010 y aquellos programas relativos a las áreas de Consumo y Administración y Seguridad Industrial que cierran el ámbito competencial del Departamento.

Entre las novedades más relevantes de los programas se encuentran, por una lado, la de poner el acento en la necesidad del crecimiento empresarial y la formación de grupos, y en el fomento de la actividad emprendedora desde las raíces culturales, que junto con la vertiente de la internacionalización completan uno de los Ejes del modelo. Por otro lado, en el ámbito de la innovación, junto con el reforzamiento del cambio estructural propiciado por la estrategia tecnológica y del desarrollo de la sociedad de la información, se pone énfasis en la creación de conocimiento y en dimensión social de la innovación, referida tanto a las redes sociales como a la necesidad de una transformación de las organizaciones orientada a crear proyectos compartidos en los que florezca la creatividad y la innovación como fundamento de la competitividad.

Entre las nuevas orientaciones en materia de Comercio y Turismo se pone el acento en una valorización urbana mediante estrategias de zona que refuercen la competitividad comercial y por un desarrollo de nuevos segmentos turísticos que acompañen a la consolidación del de ciudad, cultura y negocios.

De acuerdo con lo anterior, el Departamento va a articular su actuación en las siguientes áreas y programas principales:

1. CRECIMIENTO DE EMPRESAS Y GRUPOS EMPRESARIALES.

Garai batean, inbertsio/enplegu binomioa zen oinarria langabeziaren arazoari erantzuteko. Gaur egun, aldiz, globalizazioaren eta aldaketa teknologikoaren testuinguruan, hazkunderaren beharri eta esparru berria lehiatzeko kasu bakoitzean beharrezkoa den gutxieneko tamaina eraginkorraren lorpenari erabat lotutako berrikuntza-estrategia bat behar da.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Euskal enpresetan hazkunde-bokazioa sortzea. Funtsezkoa da enpresak jarduera-sektore bakoitzean lehiatzeko tamaina egokia lortzeko duen beharraz jabetzea. Kontzientziatzeko prozesu horretan, bitarteko eragileek (hala nola klusterrek, eskualdeko garapen-agentziek, Industrialdeek eta abarrek) funtsezko zeregina betetzen dute.
- Lankidetzaren eta aliantzaren sustatzea. Lankidetzaren proiektuen eta aliantzaren bitartez, bakarrik lortu ezin dituzten aukerak izan ditzakete enpresek. Ildo horretan, "sare" kontzeptua erakundearen elementu estrategiko bihurtu da. Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzaren kluster-politika elementu aproposa izan da, eta sendotu eta dinamizatu beharra dago, enpresa-lankidetzaren mailan aurrera egiteko.
- Euskal enpresa taldeak osatzen eta finkatzen laguntzea. Enpresa taldeak osatzea funtsezkoa da, bai ekonomia globalean lehiatzeko duten gaitasunagatik, bai euskal enpresa-sarean duten traxio-eraginagatik.
- Hazkunderako laguntza finantzatzea. Hazkundera – enpresen inbertsioaren edo eskuratzeko bidez lortu beharrezkoak bereziki – finantzaketa-bolumen handiak behar ditu. Euskadin hainbat finantzaketa-tresna daude, eta sendotu eta optimizatu egin behar dira industria-politika babes dezaten.

2. ENPRESAK SORTZEA.

Enpresak sortzeko babesa industria-politikaren muinaren osagai izan da beti. "Euskadi gizarte ekilea" goiburupean sortutako egungo planteamenduaren alderdi berria tratamendu integrala da, alderdi ugari lantzen dituen (balioen arazoarekin eta ekimen-jardunaren kulturarekin hasi, eta prestakuntza eta norberaren ekimen-jardunaren eta enpresen barrukoan laguntzeko tresnak hobetzeko lanarekin amaitzeraino).

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Ekimen-jardunaren kultura euskal gizarte osora zabaltzea. Gizarte ekilea sortzeko euskal gizarte osatzen duten guztiak ekilearen jarrerarekiko kontzientzia positiboa izatea eskatzen du abiapuntu gisa. Hori dela eta, ekilearen zein enpresaburuaren aldeko kultura- eta gizarte-ingurune bat garatzera bideratuta dago jardun-ildo hau.
- Ekiteko prestakuntza bultzatzea. Hezkuntza-sistemaren eta ekileari proiektua abian jartzen lagunduko dion prestakuntza-eskaintzaren garapenaren bitartez ekiteko jarrera bat sortzera zuzenduta dago ildo hau.
- Enpresak sortzen laguntzea. Ildo hau enpresak sortzen laguntzeko zerbitzuen optimizazioari dagokio. Horretarako, ekimen-jardueraren sustapenaren eremuan diharduten erakunde publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa hobea bilatu behar da.

En el pasado se ponía el énfasis en el binomio inversión y empleo como respuesta al problema del desempleo, hoy el contexto de la globalización y el cambio tecnológico imponen una estrategia de innovación que está totalmente ligada a la necesidad de crecimiento y a la consecución del tamaño mínimo eficiente en cada caso para competir en el nuevo escenario.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Generar vocación de crecimiento en las empresas vascas. Es fundamental que las empresas sean conscientes de la necesidad de alcanzar la dimensión adecuada para competir en cada sector de actividad. En esta concienciación, los agentes intermedios, como los clusters, agencias de desarrollo comarcal, Industrialdeak, etc. juegan un papel esencial.
- Fomento de la colaboración y alianzas. A través de proyectos de colaboración y establecimiento de alianzas, las empresas pueden acceder a oportunidades que por sí solas no son capaces de abordar. En este sentido, el concepto de redes se ha convertido en un elemento estratégico de las organizaciones. En este marco, la política de clusters del Gobierno Vasco ha constituido un buen instrumento, que es preciso reforzar y dinamizar para lograr un avance en el nivel de cooperación empresarial.
- Apoyo a la constitución y consolidación de Grupos Empresariales vascos. La formación de grupos empresariales es clave, no sólo por su capacidad de competir en la economía global, sino también por su efecto tractor sobre el tejido empresarial vasco.
- Financiación de apoyo al crecimiento. El crecimiento, especialmente vía inversión o adquisición de empresas, precisa grandes volúmenes de financiación. En Euskadi existen diversos instrumentos de financiación que es preciso reforzar y optimizar para que apoyen la política industrial.

2. CREACIÓN DE EMPRESAS.

El apoyo a la creación de empresas siempre ha formado parte del núcleo de la política industrial. Lo novedoso del planteamiento actual concebido bajo el lema de "Euskadi sociedad emprendedora" es un tratamiento integral que aborda desde el problema de los valores y la cultura emprendedora, hasta la formación y el perfeccionamiento de los instrumentos de acompañamiento al emprendizaje individual y en el seno de las empresas.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Extensión de la cultura emprendedora en toda la sociedad vasca. La creación de una sociedad emprendedora requiere, como punto de partida, que el conjunto de actores que constituyen la sociedad vasca tengan una conciencia positiva hacia la actitud del emprendedor. Por ello, esta línea de actuación está orientada al desarrollo de un entorno cultural y social favorable tanto al emprendedor como a la figura del empresario.
- Impulso de la formación emprendedora. Esta línea se dirige a generar una actitud emprendedora, a través del sistema educativo y del desarrollo de una oferta formativa que acompañe al emprendedor en la puesta en marcha del proyecto.
- Apoyo a la creación de empresas. Esta línea se refiere a la optimización de los servicios de apoyo a la creación de empresas, buscando una mejor coordinación entre las instituciones públicas y privadas que trabajan en el ámbito de la promoción de la actividad emprendedora.

- Enpresak sortzeko programa kudeatzea. Faktore ugariak dute eragina ekimen-jardueran (merkatuen lehiakortasun-maila, esparruaren malgutasuna eta abar). Bestalde, ekimen-jardueraren eremuan eragile asko daude inplikaturik, eta ezinbestekoa da kudeatzeko eta koordinatzeko tresnak ezartzea. Hori dela eta, garrantzitsua da ekimen-jardueran laguntzeko programaren erantzukizuna argi eta garbi definitzea eta esleitzea, bertan barne hartutako jardunen sustapena, koordinazioa eta kudeaketa bermatzeko.

3. NAZIOARTERATZEA.

Gutxi dira negozioaren funtsezko ezaugarrietatik tokikoak diren enpresak. Izan ere, enpresa-hazkunderaren ondorioa jardueren nazioarteratzea da, bakoitzaren premietara egokitutako gogoeta batetik sortu beharrekoa. Euskal enpresek iragan hurbilean egindako aurrerapena bikaina izan da, politika publikoen laguntza bezalaxe; egindako bideak berak, ordea, beste erronka batzuk erakusten ditu kudeaketaren eta pertsonen eremuan, kanpoko plataformen beharri dagokionez eta abar.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Euskal enpresak nazioartean zabaltzeko bokazioa sustatzea. Jardun-ildo honen xedea euskal enpresa guztiek nazioarteko aldagaia beren gain hartzea eta integratzea, eta kanpora zabaltzeak dakartzan aukerez eta mehatxuez jabetzea da.
- Nazioarteko kudeaketari buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzea, atzerrira joandako pertsonen kudeaketari eta aberriaratzeari garrantzi berezia emanez. Nazioarteko kudeaketan orientatuko dituzten erreferentzia-ereduak behar dituzte enpresek. Enpresen kezka ohikoenetako bat atzerrira joandako pertsonen kudeaketa eta aberriaritzea izan ohi da.
- Nazioarteko profila duten pertsonak garatzen laguntzea. Pertsonak funtsezkoak dira nazioarteko jardueran arrakasta lortzeko. Beharrezkoa da nazioarteko profila izango duten, hizkuntzak jakin, kanpoko merkataritza ezagutu eta jarrera irekia izango duten pertsonak garatzen laguntzea.
- Enpresari kanpora zabaltzeko aukerari buruzko gogoeta estrategikoaren prozesuetan laguntzea. Enpresek nazioarteko aldagaia txertatu behar dute negozio-estrategia orokorrean. Halaber, nazioarteko merkatuei ekiteko modurik onena zein den erabaki behar dute, negozio-estrategiaren arabera.
- Euskal enpresetan nazioarteko funtzioa sartzeko eta finkatzeko laguntza ematea. Maila bikoitzean jardun beharra dago, kanpoko jardueran hasten diren enpresei zein nazioarteratuta dauden eta nazioarteko jarduerara finkatu nahi duten enpresei lagunduta. Bestalde, estrategikotzat hartutako herrialde jakin batzuetan garatuko diren lehentasuneko jardun iraunkorren alde egin behar da. Ildo horretan, Eusko Jaurilaritzaren Sailen eta beste erakunde batzuen ahaleginak batu behar dira (elkarte sektorialak, merkataritza-ganberak, klusterrak, BEC eta abar) euskal enpresen onerako izango den eragin handiagoa lortzeko.

- Gestión del programa de creación de empresas. Son diversos los factores que inciden sobre la actividad emprendedora (grado de competencia de los mercados, flexibilidad del marco, etc.). Por otro lado, en el ámbito del emprendizaje, existen numerosos agentes implicados que hacen imprescindible establecer instrumentos de gestión y coordinación. Por ello, se hace importante definir y asignar claramente la responsabilidad del programa de apoyo a la actividad emprendedora, de forma que se garantice la promoción, coordinación y gestión de las actuaciones incluidas en el mismo.

3. INTERNACIONALIZACIÓN.

Son pocas las empresas que por las propias características esenciales del negocio son locales, lo que quiere decir que el corolario del crecimiento empresarial es la internacionalización de las actividades que debe surgir de una reflexión adaptada a las necesidades individuales. El progreso realizado por las empresas vascas en el pasado reciente es notable como lo es el acompañamiento de las políticas públicas; pero el propio camino recorrido va mostrando nuevos desafíos en el ámbito de la gestión, las personas, la necesidad de plataformas exteriores y otras.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Fomento de la vocación de expansión internacional de las empresas vascas. Esta línea de actuación pretende que todas las empresas vascas tengan asumida e integrada la variable internacional, siendo conscientes de las oportunidades y amenazas derivadas de la apertura exterior.
- Información y formación sobre gestión internacional, con especial relevancia a la gestión de personas desplazadas y su repatriación. Las empresas precisan modelos de referencia que les orienten en la gestión internacional, siendo una de sus preocupaciones más comunes la gestión de las personas desplazadas y su repatriación.
- Apoyo al desarrollo de personas con perfil internacional. Las personas, nuevamente, son un pilar fundamental del éxito en la actividad internacional. Es necesario apoyar el desarrollo de personas con perfil internacional, con conocimientos de idiomas y comercio exterior y con una actitud abierta.
- Apoyo a la empresa en sus procesos de reflexión estratégica sobre la apertura exterior. Las empresas deben incorporar la variable internacional en su estrategia global de negocio, decidiendo cuál es la mejor manera de abordar los mercados internacionales, en función de su Estrategia de negocio.
- Apoyo a la iniciación y consolidación de la función internacional en la empresa vasca. Es preciso actuar en un doble nivel apoyando, tanto a las empresas que inician su actividad exterior, como aquellas ya internacionalizadas que quieren consolidar su actividad internacional. Por otro lado, se apuesta por una actuación prioritaria y sostenida en determinados países, considerados estratégicos, aunando esfuerzos de departamentos del Gobierno y otras instituciones (asociaciones sectoriales, cámaras de comercio, clusters, BEC, etc.) para lograr un mayor impacto que redunde en beneficio de las empresas vascas.

- Nazioarteko eremuko elkarlana eta lankidetzak sustatzea. Nazioarteko eremuan, lankidetzak ohikoa izan beharko luke euskal enpresen eta erakundeen artean. Hori dela eta, lankidetzak babesteko dauden tresnak (presentzialak zein birtualak) sustatu eta bultzatu behar dira.

- Fomento de la colaboración y la cooperación en el ámbito internacional. La colaboración en el ámbito internacional debería ser una práctica habitual entre empresas y organizaciones vascas. Por ello, es preciso potenciar y relanzar los instrumentos existentes, tanto presenciales como virtuales, de apoyo a la colaboración.

4. GIZARTE BERRIKUNTZA ETA ENPRESA ERALDAKETA.

Berrikuntza, funtsean, kontzeptu ekonomikotzat hartzen da: premiei merkatuaren bitartez era originalean erantzutea. Gehienetan, produktu bati eta, beraz, teknologiarik lotuta egon ohi da. Berrikuntza, hala ere, gizarteko eta antolamenduko fenomenoak ere bada, eta gizabanakoen, erakundeen eta gizarte-sareen mende dago. Beharrezkoa da ideia hori gizartean sustatzea eta erakundeen baitan gara dadin lortzea, frogatuta baitago lehiakortasun-abantaila negozio-ereduari produktuei bezain lotuta dagoela. Kalitate-politikak, Europako eredu baliatuta, emaitza garrantzitsuak lortu ditu enpresa-sarean, eta emaitza horiek finkatu egin behar dira. Horrek aukera ematen digu berrikuntzaren kudeaketa eta erakundeen eraldaketa (proiektu konpartituetara bideratua) nabarmenduko dituen egoera batean jarduteko.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Berrikuntzaren kultura sustatzea. Berrikuntza Lehiakortasun Ereduaren funtsezko ardatza da eta, horregatik, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren funtsezko mezua izan behar du. Gizarte osoa sentibilizatu eta mentalizatu behar da berrikuntzak ekonomia lehiakorra lortzeko eta bizikaltatea hobetzeko duen garrantziaren inguruan. Horretarako, maila eta giza talde guztietara (haur eta gazteengana, enpresa-sektorerara eta abar) zuzendutako hainbat ekintza eta mezua diseinatu behar dira.
- Enpresen kudeaketa eta antolamendua modernizatzea eta hobetzea, berrikuntza eta lehiakortasuna errazteko. Euskal enpresek laguntza-tresnak behar dituzte barne-eraldaketa prozesuetan, bai eta berrikuntzaren kudeaketarako erreferentzia-ereduak ere. Halaber, pertsonen parte-hartzea bultzatu behar da proiektu partekatuetan garatzeko.
- Zuzendarientzako prestakuntza berritzea, berrikuntzaren kultura bultzatuko duten kudeaketarako eta aitzindaritzarako gaitasunak garatzeko. Zuzendaritza-garapenaren eremuan eduki berrien, formatu berrien eta metodologia berrien garapena erraztu nahi da. Halaber, zuzendariak bizitzan egin beharreko graduatuondoko eta prestakuntzako programak sendotzea proposatzen da, bakoitzaren garapen egokia eta erakundearen antolamenduen aurrerapena lortzeko.
- Enpresen inguruko zerbitzu aurreratuen sektorea garatzea eta finkatzea. Gero eta nabariagoa da enpresentzako zerbitzuen sektoreak zeregin garrantzitsuak betetzen duela jakintza transferitzearen bitartez produktibitatea bultzatzeko helburuari dagokionez. Hori dela eta, esparru horretan puntakoa den sektorearen garapena babestu nahi da.

4. INNOVACIÓN SOCIAL Y TRANSFORMACIÓN EMPRESARIAL.

La innovación se entiende en principio como un concepto económico: satisfacción de necesidades de forma original a través del mercado, las más de las veces ligada a un producto y por tanto a la tecnología. Pero la innovación es también un fenómeno social y organizativo, que depende de los individuos, las organizaciones y las redes sociales. Hay que promover esa idea en la sociedad y conseguir que la misma se desarrolle en el seno de las organizaciones porque está comprobado que la ventaja competitiva está tan ligada al modelo de negocio como a los productos. La política de calidad, con el modelo europeo como palanca ha logrado importantes resultados en el tejido empresarial que hay que consolidar y que nos permite abordar un estadio que ponga el énfasis en la gestión de la innovación y en la transformación de las organizaciones en clave de proyectos compartidos.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Fomento de la cultura innovadora. La innovación es el eje fundamental del Modelo de Competitividad y por ello deberá ser el mensaje clave del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. Es preciso sensibilizar y mentalizar a toda la sociedad sobre la relevancia de la innovación para el logro de una economía competitiva y la mejora de la calidad de vida. Ello requiere diseñar distintos tipos de acciones y mensajes orientados a todos los niveles y colectivos, desde los niños y jóvenes, hasta al sector empresarial.
- Modernización y mejora de la gestión y organización de las empresas, con el objetivo de favorecer la innovación y la competitividad. Las empresas vascas precisan de instrumentos de apoyo en sus procesos de transformación interna, así como de modelos de referencia en gestión de la innovación. Así mismo se necesita impulsar la participación de las personas para conseguir desarrollar proyectos compartidos.
- Renovación de la formación a directivos, con el objetivo de desarrollar las capacidades de gestión y liderazgo que impulsen la cultura de la innovación. Se apuesta por favorecer el desarrollo de nuevos contenidos, nuevos formatos y nuevas metodologías en el ámbito del desarrollo directivo. Asimismo, se propone reforzar los programas de postgrado y formación a directivos a lo largo de la vida, de manera que permita su adecuado desarrollo individual y el progreso de sus organizaciones.
- Desarrollo y consolidación del sector servicios avanzados alrededor de las empresas. Cada vez es más evidente que el sector de servicios a empresas tiene un papel importante en el objetivo de impulsar la productividad, a través de la transferencia del conocimiento. Por ello, se pretende apoyar el desarrollo y consolidación de un sector puntero en este campo.

5. ESTRATEGIA TECNOLÓGICA.

5. ESTRATEGIA TECNOLÓGICA.

Euskal ekonomiak behar duen egitura-aldaketak eduki teknologiko handiagoko produktu berriak garatzea eta sektore berriak sustatzea ekarri behar du, eta, horretarako, beharrezkoa da enpresentzako babes-ildoei eta zientziaren eta teknologiararen euskal sarea gaitzeari lehentasuna ematea, bai eta, jakina, pertsonak gaitzeari ere, pertsonak baitira, ez dezagun ahaztu, ikerketa-jardueraren oinarria.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Giza kapital ikertzailea gaitzea, sortzea eta jakintzaren eta berrikuntzaren euskal espazioan integratzea. Jakintzan eta teknologian oinarrituriko ekonomia eratzekeo prozesuan, giza kapitalaren stocka prozesu horren ondoriozko aldaketa etengabeetara egokitzeko premia da funtsezko lehen alderdia. Egokitze horrek ikertzaileen kopuru garbiak haztea, eta jakintzaren eta berrikuntzaren euskal espazioan dagoen giza kapitala gaitzeko eta kualifikatzeko prozesu anbizio handikoa eta integrala behar du.
- Euskal enpresaren bilakaera eta berrikuntza teknologikoa. Enpresak bilakaera teknologikoaren prozesuan orientatzea da jardun-ildo honen xedea, ETEak bereziki. Ildo horretan, bereziki azpimarratu beharra dago beharrezkoa dela oinarri teknologikoko produktu eta enpresa berriak ateratzea eta, horren bidez, jakintzan eta teknologian intentsiboak eta balio erantsikoak diren jarduerak berrieta dibertsifikatzea.
- Ikerketa-gaitasunen eta stock zientifiko-teknologikoaren bikaintasuna, lankidetzeta eta europartzea. Eragile guztien arteko lankidetzeta sustatu behar da, lehiakortasunaren erronkari erantzun egokia emango zaiola bermatzeko. Kalitatean eta bikaintasunean oinarrituta egungo eragile zientifiko-teknologikoen sarea bera antolatzekeo, bateratzeko eta kudeatzeko era berriak finkatzean datza etapa berri honen erronka. Horretarako, masa kritikoak batu eta gaitasun komunak sustatu behar dira.
- Ikerketa eta berrikuntza eskariaren premietara egokitzea. Euskal stock zientifiko-teknologikoak ahalegina egin behar du euskal enpresen premiei erantzun hobea emateko. Horretarako, klusterrek antena teknologiko gisa eta zientziaren eta teknologiararen sistemaren eragileekiko solaskide iraunkor gisa betetzen duten zeregina indartzea proposatzen da.
- Teknologia enpresei transferitzeko laguntza ematea. Garrantzitsua da ziurtatzea ikerketako eta berrikuntzako prozesuen emaitzak enpresari transferitzen zaizkiola. Horretarako, zientziaren eta teknologiararen sistemaren eragileen eta enpresa-sektorearen arteko komunikazio-bide gehiago eta hobeak ezarri behar dira.
- Erakunde-kudeaketaren eredu berria. Estrategia teknologikoaren programa abian jartzeko, zientziaren eta teknologiararen euskal sistemaren kudeaketako eta aitzindaritzako gaitasunak egokitu behar dira. Hori dela eta, sistemaren eragile guztien arteko eta Administrazioaren eremu guztien arteko erakunde-harremanen eta antolamenduaren eredu ezartzen du programa horrek, ikuspegi integral batetik.

6. INFORMAZIOAREN ETA JAKINTZAREN GIZARTEA.

El cambio estructural que precisa la economía vasca se debe traducir en el desarrollo de nuevos productos de mayor contenido tecnológico y en la potenciación de nuevos sectores, lo que requiere incidir en líneas de apoyo dirigidas a las empresas, en la capacitación de la red vasca de ciencia y tecnología y también de las personas que no olvidemos son la base de la actividad investigadora.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Capacitación, generación e integración en el espacio vasco de conocimiento e innovación de nuevo y mejor capital humano investigador. Un primer aspecto crucial en el proceso de conformación de una economía basada en el conocimiento y la tecnología es la necesidad de adecuar el stock de capital humano a los constantes cambios que se derivan de este proceso. Esta adecuación pasa por un incremento neto de la cantidad de investigadores y de un proceso ambicioso e integral de capacitación y cualificación continua del capital humano existente en el espacio vasco del conocimiento y la innovación.
- Evolución e innovación tecnológica de la empresa vasca. Esta línea de acción pretende orientar a las empresas, especialmente a las pymes, en su proceso particular de evolución tecnológica. Se da en este sentido, un especial énfasis en la necesaria diversificación hacia nuevas actividades de valor añadido e intensivas en conocimiento y tecnología, mediante el lanzamiento de nuevos productos y nuevas empresas de base tecnológica.
- Excelencia, cooperación y europeización de las capacidades de investigación y del stock científico-tecnológico, fomentando la cooperación entre todos los agentes para garantizar una respuesta eficaz al reto de la competitividad. El reto de esta nueva etapa es consolidar nuevas formas de organización, integración y gestión de la propia red de agentes científico-tecnológicos existente, sobre las bases de la calidad y la excelencia, sumando masas críticas y potenciando capacidades comunes.
- Alineación de la investigación e innovación con las necesidades de la demanda. El stock científico tecnológico vasco debe realizar un esfuerzo para dar una mejor respuesta a las necesidades de las empresas vascas. Para ello, se propone reforzar el papel de los clusters como antena tecnológica e interlocutores permanentes con los agentes del sistema de ciencia y tecnología.
- Apoyo a la transferencia de tecnología a la empresa. Es importante asegurar que los resultados de los procesos de investigación e innovación son transferidos a la empresa, estableciendo más y mejores canales de comunicación entre los actores del sistema de ciencia y tecnología y el sector empresarial.
- Nuevo modelo de gestión institucional. La puesta en marcha del programa de estrategia tecnológica requiere adecuar las capacidades de gestión y liderazgo del sistema vasco de ciencia y tecnología. Por ello, este programa establece un modelo de organización y de relaciones institucionales entre todos los agentes del sistema y entre todos los ámbitos de la Administración, desde una perspectiva integral.

6. SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y EL CONOCIMIENTO.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek zeregin garrantzitsua betetzen dute herrialdearen lehiakortasunean, enpresen lehiakortasunean eta negozio berrien sorreran. Sare-teknologiak direnez gero, informazioaren gizartearen garapenak, enpresa-eremura ez ezik, gizarte osora ere iritsi behar du eraginkorra izateko. Gainera, teknologiak baliau behar dira erakundeetan jakintza sortzeko jarduna sustatuko duten tresnak eta praktikak garatzeko.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Gizarte osoaren alfabetatze digitala. Herritar guztiak teknologia berriak erabiliko dituzteneko gizarterantz aurrera egitea eta hesi digital deitutakoa saihestea da ildo honen helburua.
- Enpresan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea. Teknologia berriei eragina dute enpresen produktibitatean. Hori dela eta, funtsezkoa da Administrazioak teknologia horien aprobetxamendu estrategikoa sustatzea hainbat eremutan (kudeaketa, antolamendua, merkaturatzea eta abar), lehiakortasun-abantaila gisa.
- IKTei lotutako negozio berriak sustatzea, eta teknologia horiek gure egitura ekonomikoa dibertsifikatzeko eta egungo sektoreei balioa emateko eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea.
- Sektore bakoitzaren premietara egokitutako produktu estandarizagarriak garatzen laguntzea. Aurreko ildorekin bat etorritik, enpresen premietara egokitutako irtenbide teknologikoak izatea da biderik onena enpresetan teknologia berriak txertatzeko. Aldi berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea garatzea gure sare ekonomikoa dibertsifikatzeko aukera ona da.
- Herritarrekiko oinarrizko harreman-prozesuetan (funtsezko zerbitzu publikoetan, bereziki) IKTak erabiltzea sustatuko duen Gobernu hurbila eta gardena.
- IKTen erabilera arindu eta erraztuko duen eta lurralde osoan konektatzeko aukera bermatuko duen azpiegitura-sarea garatzea.

7. MERKATARITZA.

Euskadiko egitura ekonomikoa oinarrizko sektorea da merkataritza, bai magnitudeagatik, bai duen gizarte-garrantziagatik eta hiri-bizitza egituratzeko duen ahalmenagatik. Gainera, ekonomia garatuek hirugarren sektorerara bideratzeko hartu duten joera dela eta, beharrezkoa da merkaturatzeko egiturak eta bideak behar bezala egituratzea (ekonomia horien garapen iraunkorra lortzeko) eta Euskadik ingurune globalean merkataritza-lehiakortasun ona izateko funts estrategikoak definitzea. Helburuen artean, honako hauek planteatzen dira: banaketa-prozesuaren kostuak arrazionalizatzea eta murriztea (eta, horretarako, enpresalankidetzak hobetzeko neurriak areagotzea), eta merkataritza-egituraren lehiakortasuna eta iraunkortasuna handitzea (eta, horretarako, hiri-harremanaren eredu berriak garatzea).

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Hiri-areen balioa ez galtzeko zonako estrategiak garatzearen bitartez merkataritza-lehiakortasuna hobetzeko egiturak sortzea eta sendotzea, zona pobreetan eta hirigune historikoetan bereziki.

Las tecnologías de la información y la comunicación desempeñan un papel importante en la competitividad-país y también en la de las empresas y en el nacimiento de nuevos negocios. Tratándose de tecnologías de red, para ser eficaz, el desarrollo de la sociedad de la información debe llegar a la sociedad entera, además de incidir en el ámbito empresarial. Además es preciso apoyarse en las tecnologías para desarrollar instrumentos y prácticas que fomenten la creación de conocimiento en las organizaciones.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Alfabetización digital de toda la sociedad. El objetivo de esta línea es avanzar hacia una sociedad en la que todos los ciudadanos utilicen las nuevas tecnologías, evitando la llamada brecha digital.
- Promoción del uso de las tecnologías de la información y comunicación en la empresa. Las nuevas tecnologías tienen un impacto en la productividad de las empresas. Por ello, es fundamental fomentar desde la Administración el aprovechamiento estratégico de las mismas en distintos ámbitos (gestión, organización, comercialización, etc.) como fuente de ventaja competitiva.
- Promoción de nuevos negocios relacionados con las TICs, aprovechando las oportunidades que éstas ofrecen para diversificar nuestra estructura económica y aportar valor a los sectores existentes.
- Apoyo al desarrollo de productos estandarizables, adaptados a las necesidades de cada sector. En consonancia con la línea anterior, La existencia de soluciones tecnológicas adaptadas a las necesidades de las empresas es la mejor vía para promover la incorporación de las nuevas tecnologías en la empresa. Al mismo tiempo, el desarrollo del sector de las tecnologías de la información y la comunicación representa una oportunidad de diversificación de nuestro tejido económico.
- Un Gobierno cercano y transparente, que fomente la utilización de las TIC en los procesos básicos de relación con los ciudadanos, especialmente en servicios públicos clave.
- Desarrollo de una red de infraestructuras que agilice y facilite la utilización de las TIC, garantizando la conectividad en todo el territorio.

7. COMERCIO.

El comercio es un sector básico de la estructura económica de Euskadi, tanto por sus magnitudes como por su importancia social y su capacidad estructurante de la vida urbana. Además, la tendencia a la terciarización de las economías desarrolladas precisa de una adecuada articulación de sus estructuras y canales de comercialización, que permitan un desarrollo sostenible de las mismas, y de la definición de las claves estratégicas que posibiliten la competitividad comercial de Euskadi en un entorno global. Como objetivos se plantea la racionalización y reducción de costes del proceso distributivo, intensificando las medidas tendentes a la mejora de la cooperación empresarial y el incremento de la competitividad y la sostenibilidad de la estructura comercial, desarrollando nuevos modelos de relación urbana.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Fortalecimiento y creación de las estructuras para la mejora de la competitividad comercial a través del desarrollo de estrategias zonales que eviten la pérdida de valor de áreas urbanas, especialmente en zonas desfavorecidas y cascos históricos.

- Udalerrri txikietan eta biztanleria-intentsitate txikiko areetan merkataritzaren iraunkortasuna hobetzera bideratutako elementuak balioztatzea.
- Lehiakortasuna indartzeko, eskala-ekonomiak garatzeko eta merkataritza-integrazioa lortzeko beharrezkoak diren tresnak garatzea.
- Sektorearen profesionalizazioa hobetzea, giza baliabideen prestakuntza hobetzearen eta produkzio-ahalmena sustatzearen bitartez.
- Enpresa-bikaintasuna sustatzeko beharrezkoak diren mekanismoak garatzea, merkataritzako kalitateari lotutako programak ezartzearen bitartez.
- Udal-inguruneetan handizkako eta txikizkako hornikuntzen kudeaketarako eredu berriak ezartzea, banaketa-katearen lehiakortasunaren alderdi garrantzitsu gisa.
- Merkataritza-berrikuntzari lotutako programak garatzea, eta trazabilitatea eta zentzuzko etiketatzea lortzeko aukera emango duten produktuak sortzea.
- Euskadiko Banaketaren Behatokia sortzea, sektorearen egoerari eta bilakaerari buruzko azterketa egiteko.
- Puesta en valor de elementos orientados hacia la mejora de la sostenibilidad del comercio en pequeños municipios y áreas de baja intensidad poblacional.
- Desarrollo de las herramientas necesarias para el refuerzo de la competitividad, el desarrollo de economías de escala y la integración comercial.
- Mejora la profesionalización del sector a través de la mejora de la formación y potenciación de la capacidad productiva de los recursos humanos.
- Desarrollo de los mecanismos necesarios de fomento de la excelencia empresarial a través de la implantación de programas de calidad en el comercio.
- Implantación de nuevos modelos en la gestión de aprovisionamientos mayoristas y minoristas, en entornos municipales, como aspectos relevantes en la competitividad de la cadena distributiva.
- Desarrollo de programas de innovación comercial y creación de productos que posibiliten su trazabilidad y el etiquetado inteligente.
- Creación de un Observatorio de la Distribución de Euskadi, que posibilite la elaboración de análisis de situación del sector y la previsible evolución del mismo.

8. TURISMOA.

Euskadi finkatzen ari da kalitateko turismo-jomuga gisa. Kultura-jomuga eta hiri-jomuga gisa, adibidez, Europako garrantzitsuenen artean dauden hiriak dituela esan dezakegu argi eta garbi. Gainera, turistaren tipologia aldatzen ari da (aisiarako gero eta joera handiagoa agertzen da) eta ostatu-eskaintza nabarmen garatu da. Hortik abiatuta, Euskadi produktu anitzeko jomuga gisa garatu nahi da, egungo segmentuak finkatuta eta beste batzuk garatuta, eta turismo profesionala eta aisia-turismoa konbinatuta.

Horretarako, honako jardun-ildo hauek planteatzen dira:

- Turismoaren ikuspegitik gutxiegi erabilitako baliabideak baloratzea eta egungo segmentuetan (negozioei, bilerei eta kongresuei lotutako turismoa, kulturari lotutako hiri-turismoa eta abar) zein interes berezia duten eta bultzatzeko aukera ematen duten segmentu edo eremu berrietan (natura-turismoa, enoturismoa, itsas bidaien turismoa eta abar) produktu berriak sortzeko laguntza ematea (ahalegin selektiboa inbertsioen sustapenean...).
- Enpresa berriak sortzeko aukera babestea, ekimen-jarduna babesteko neurri espezifikoak garatuz eremu horretan, eta egungo enpresa-sarea sendotzea, sarea modernizatzeko aukera babestuz eta enpresa arteko lankidetzara sendotuz, enpresaren lehiakortasuna hobetuko duen dimentsio egokia lortze aldera.
- Euskadik merkatuetan turismo-jomuga gisa duen presentzia indartzea, merkatu, segmentu eta produktuetara bideraturiko sustapen- eta merkaturatze-politika garatuz, turismo-informazioko sistemak hobetuz eta Euskadik sare digitaletan (Internet) duen presentzia sendotuz.

8. TURISMO.

Euskadi se va consolidando como un destino turístico de calidad, con un posicionamiento claro como destino cultural y de ciudad entre las ciudades europeas más importantes. Además se da un cambio en la tipología del turista cada vez más orientado al ocio y también un notable desarrollo de la oferta de alojamiento. A partir de ello se apuesta por desarrollar Euskadi como un destino multiproducto, con la consolidación de los segmentos existentes y el desarrollo de otros nuevos combinando el turismo profesional y el de ocio.

Para ello se plantean las líneas de actuación siguientes:

- Puesta en valor de recursos infrautilizados desde la óptica del turismo e impulso a la generación de nuevos productos (esfuerzo selectivo en promoción de inversiones, etc.), tanto en segmentos ya existentes (turismo de negocios, reuniones y congresos, turismo urbano cultural) como en nuevos segmentos o nichos de especial interés y oportunidad de impulso (turismo de naturaleza, enoturismo, turismo de cruceros y otros).
- Apoyo a la creación de nuevas empresas desarrollando medidas específicas de apoyo al emprendizaje en este ámbito y fortalecimiento del tejido empresarial existente apoyando la modernización del mismo y fortaleciendo la cooperación interempresarial cara a alcanzar una dimensión adecuada que mejore su competitividad.
- Fortalecimiento de la presencia de Euskadi como destino turístico en los mercados, desarrollando una política de promoción y comercialización orientada a mercados, segmentos y productos, mejorando los sistemas de información turística y fortaleciendo la presencia de Euskadi en las redes digitales (Internet).

- Berrikuntza eta Kalitatea enpresa eta turismo-jomugetan sustatzea, bultzada berri bat emanez enpresa eta jomugetako Kalitatearen Kudeaketa Sistema ezarrita eta Turismo Berrikuntza Plan bat garatu eta ezarrita.
- Lurraldearen turismo-kudeaketa garatzea horretarako lankidetzarako erakundeen sarea osatu, sendotu eta indartzuz, eta eskaintza integratzea eta Turismoa Dinamizatzeko Planen fase berri bat bultzatzea.
- Profesionalen, enpresaburuen eta tokiko, eskualdeko eta abarreko eragile publikoen artean lanbide-garapena eta jakintzaren sorkuntza eta zabalkundea bultzatzea, hezkuntza/prestakuntzako sistemarekin lankidetzan.
- Turismoaren arloko kudeaketa-ahalmenak areagotu eta hobetzea, sektorea bera, administrazioak eta gizarte osoa jabe daitezen turismoak aberastasuna eta enplegua sortzeko jarduera ekonomiko gisa eta Euskadiren kanpoko proiektiorako eta irudirako elementu gisa duen garrantziaz, betiere oinarritzat erakunde arteko lankidetzak eta lankidetzak publiko-privatua hartuta.
